



BIZIPOZA

2018 URTEKO MEMORIA

1. HITZAURREA

Jarraian aurkezten dugun txosten honek, Bizipoza Elkarteak 2018 urtean aurrera eramandako ekimenen berri ematea du helburu. Egitasmo hauek aurrera eramatea, jasotako laguntzek eta elkarlanak ere egin du posible, guztion arteko elkarlan honen ondorio da Bizipoza aurrera eramaten ari den ibilbidea. **Guzti honegatik beraz, mila esker bihotz-bihotzez, Bizipoza elkartearen izenean.**

Txosten hau ondorengo atalez osatzen da:

- **Bizipozaren funtzioa: Izaera, misioa eta bisioa**
- **Bizipozaren helburu nagusiak**
- **Bizipozako bazkideak, boluntarioak eta elkarteak.**
- **Bizipozaren egitasmo ildoak eta 2018 urtean aurrera eramandako ekimenak**

BIZIPOZAREN FUNTZIOA: IZAERA, MISIOA ETA BISIOA

- Bizipoza irabazi asmorik gabeko **gizartegintza egitasmoa** da: izaera bereziko gaiak lantzen dituzten eta haur eta familien ongizatea helburu duten elkarteei elkarteei laguntza afektiboa eta materiala eskaintzea du xede eta elkarte , haur eta familia hauek transmititzen dituzten baloreak jasoaz aberastu, hezi eta gizarteratzea.
- Bizipoza-k **bizipoza** du misio: hainbat zailtasun bizi dituzten familiekin eta elkarteekin batera poza partekatzea, euskaraz eta sorkuntzatik. Elkarte guzti hauek transmititzen dituzten baloreak gizarteratzea da bizipozaren misioa.
- Bizipoza-k **auzolana** du bisio: deneriko herritar, talde eta erakundeek osaturiko bolondres-sarea osatzea gizartegintzaren poza bizitzeko.

Euskaraz elkartasuna sustatu nahi dugu auzolanaren bidez bizipoza nagusitu dadin.

BIZIPOZAREN HELBURU NAGUSIAK

- Izaera bereziko gaiak azalaraztea ume zein heldu euskararen bidez sentsibilizatuz.
- Errealitate horiek lantzen dituzten elkarteei laguntza afektiboa ez ezik, eguneroko lanerako dituzten premiei erantzuteko baliabide funtzionalak lortzeko laguntza eskaintzea.
- Gizartegintzan euskaraz eta bizipozez jardun nahi duten herritarrei auzolan egitasmo eraginkorra eskaintzea, boluntario sare bat osatuz.

BIZIPOZA-KO ELKARTEAK, BAZKIDEAK ETA
BOLUNTARIOAK.

Ondokoak dira gaur-gaurkoz Bizipozako ELKARTEAK:

Bizipozako elkarteak gaur-gaurkoz 34 dira, guztiak izaera bereziko gaiak lantzen dituzten elkarteak, haurren eta familien ongizatea helburu duten elkarteak. Elkarteak Bizipoza-ren balore transmisoreak dira, Bizipoza eta bertako kideak baloreetan aberastu eta hezten dituztenak.

Elkarte anitzak Bizipozako partaide izateak elkarteen arteko ezagutza eta elkar laguntza ere bultzatzen du, elkarlanak ematen duen indarrak elkarteen lana eta ezaugarri bereziak gizartera ezagutarazteko baliatuz.

Ondokoak dira, gaur gaurkoz, Bizipoza-ko kide diren 34 elkarteak:

- 1.- ADEMG: Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitza Elkartea
- 2.- AFESTA: Euskadiko Tourette Sindromearen eta bestelako osasun-arazoaren familien Elkartea
- 3.- AGIPASE: Gipuzkoako guraso bananduen elkartea.
- 4.- AMPGYL: Gay, Lesbiana, Bixesual eta Transexualen Gurasoen Elkartea.
- 5.- ARNASA: Gipuzkoako Fibrosi Kistikoaren Elkartea
- 6.- ASPANIF guraso elkartea, euren umeak erbi ezpaindun edo ahosabai hautsiekin jaiok izaki eta, batibat, Euskal Herrian jarduten duena.
- 7.- ASPANOGI: Haur Minbizidunen Gurasoen Elkartea.
- 8.- BANAIZ BAGARA: Euskal Herrian bizi diren etorkinekin euskara ikasteko moduak eskaintzen ditu.
- 9.- BEROA: Gipuzkoako harrera familien elkartea.
- 10.- BIHOTZEEZ: Kardiopatiadun haurren familien Elkartea.
- 11.- BIAK BAT: Elbarritasun bat duten lagunei eta gizartean bazterturik geratzeko arriskua dutenei laguntzeko txakurrak hezten ditu.

- 12.- CHERNOBILEN LAGUNAK: Ukraniako Dovia gizarte etxearekin lan egiten du Gipuzkoako elkarteak.
- 13.- CHRYSALLIS EUSKAL HERRIA: Adingabe Transexualen Familien Elkarteak.
- 14.- DRAVET : Dravet Sindromea dutenen Fundazioa.
- 15.- ETIOPIA UTOPIA: Wukron eta hedaduraz, Tigray eskualdean, garapenerako lankidetzan lagundu eta laguntza humanitarioa ematea duena.
- 16.- FSDPV: Euskadin down sindromea duten familien elkarteak.
- 17.- GEHITU: LGTBI kolektiboaren berdintasun sozialaren alde lan egiten dute.
- 18.- GIZAKIEN LURRA: Laguntza zuzena babesik gabeko hurrei. Politika, arraza eta konfesionaltasuna kontutan hartu gabe.
- 19.- GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUEN FEDERAZIOA: Kirol egokituaren sustapena eta antolaketa Gipuzkoan.
- 20.- OPORRAK BAKEAN : Sahara herriaren alde lan egiten duen elkarteak.
- 21.- GURE NAHIA: Gipuzkoako Gaixotasun arraroak dituzten haurren aldeko Elkarteak.
- 22.- GURE SEÑEAK: Bizkaiko Txorierrin gaixotasun arraroak dituzten haurren familien Elkarteak.
- 23.- HIRU HAMABI: Garuneko kaltea jasan duten adin txikikoen familien elkarteak
- 24.- JUNEREN HEGOAK: Beharra duten beste hurrei laguntzeko sortutako elkarteak.
- 25.- KALE DOR KAYIKO: Ijito Kultur Elkarteak.
- 26.- PAUSOKA ELKARTEA: Beharrian bereziak dituzten haurren gurasoak.
- 27.- SEASKAKO INTEGRAZIO BATZORDEA: ahalmen urriko haurren eskolatzea sustatzen du ikastoletan.
- 28.- UME ALAIA: Adopzio Familien Elkarteak.
- 29.- ULERTUZ: Bizkaiko Lurraldean entzumen urritasuna duten neska-mutilei eta gazteei eta horien familiei laguntza zuzena sustatzen eta eskaintzen duen elkarteak.

30.- ASPANOVAS : ASPANOVAS Bizkaia, Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarte.

31.- SANFILIPPO UMEEN EUSKAL ELKARTEA : Euskadiko Sanfilippo haurren senide eta lagunok osatzen dugu. Gure helburua haurren eta familien bizi baldintzak hobetzea eta bidean aurkitzen dituzten zailtasunak gainditzen laguntzea da.

32.- MINDARA ELKARTEA: MINDARAK jardun eremua Oarsoaldea eskualdean du (dibertsitate funtzionala duten pertsonak artatzeko Gipuzkoako elkarte). Elkarteak sortze-helburu du aniztasun funtzionala duten pertsonen autonomia sustatzea, gizarte, gorputz, kirol eta jarduera osasungarrien bidez.

33.- SUPER HACHE ELKARTEA : Gaitz larria edo onkologikoa duten umeentzako eta ikerkuntzarako laguntza elkarte.

34.- GUZTIOK: Beharrizan bereziak dituzten Bortzirietako haurren gurasoak.

Ondorengoak dira gaur-gaurkoz Bizipozako BAZKIDEAK:

Bi eratako bazkideak dira:

- Bazkideak

Elkarteko kide dira, urtean kuota bat ordaintzen dute oinarrizko beharrei erantzuteko, eta haien esku dago, gainerakoak entzunda, elkartearen egiturak antolatu eta osatzea, eta urteko egitasmoa eta diru kontuak onartzea.

Bazkide izateko aukera dute Bizipozarekin kolaboratzen duten elkarteek eta edozein eratako gizarte eragileek. Betebeharren artean urtean 1000 euroko ekarpena egitea dute. Bazkide osoek, urteko kuotarekin batera, aukeran dute bestelako ekarpena ekonomikoak egiteko aukera.

- Bizipozako elkartearen kasuan, zailtasun sozialak dituzten familiek eta gizarte-desabantaila egoeran dauden hurrei eta familiei laguntzeko elkarteek, hau da, izaera bereziko elkarteek hala nahi duten guztiak bazkide oso izango dira (bestela bazkide laguntzaile), eta urteko kuota bakoitzaren ahalmenaren arabera erabakiko da, gutxienez 200 eurokoa izanik.

Ondorengoak dira gaur-gaurkoz bazkide:

- Irrien Lagunak Kluba
- Katxiporreta
- Elkar
- Hik Hasi
- Ikastolen Elkartea
- AEK
- HUHEZI unibertsitatea
- Chrysallis Euskal Herria elkartea.
- Aspanif elkartea
- Dravet elkartea
- Euskal Herriko Down Syndrome Federazioa
- Gehitu elkartea
- Gure Señeak elkartea
- Kale Dor Kayiko elkartea
- Pausoka elkartea
- Bihotzez elkartea
- Aspanovas elkartea
- Gipuzkoako kirol egokituaren federazioa
- Aspanogi elkartea.
- Super Hache elkartea

▪ **Ondorengoak zarete gaur-gaurkoz Bizipozako BOLUNTARIO SAREKO ERAGILE:**

Bizipozako laguntzaile dira, parte hartzeko aukera dute kontsultarako eratuko diren organoetan eta bakoitzak ahal duen erako laguntza edo ekarpena egiten du, dirua jarriz -urtean ekarpen bat eginez-, lana eginez -Bizipoza jaian edo bestelako ekitaldietan lan bat eginez-, edota bestelako edozer emanaz -ikastaro bat eman, emanaldi bat artisten kasuan, eta abar-.

Boluntario izateko aukera izango dute: norbanakoek, Bizipozarekin kolaboratzen duten eta bazkide izan nahi ez duten elkarteek, gizarte eragileek eta instituzioek.

Ondorengoak dira, gaur-gaurkoz Bizipoza elkarteko boluntario:

- Real Sociedad Fundazioa
- Orona
- Irizar
- Kukai Dantza Taldea
- Elhuyar Fundazioa
- Laboral Kutxa
- BBK
- Kutxa Fundazioa
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Maier
- Danobatgroup
- Athletic Club Fundazioa
- Fagor

BIZIPOZAREN EGITASMO ILDOAK ETA 2018 URTEAN

AURRERA ERAMANDAKO EKIMENAK

Bizipozaren egitasmoak kontuan hartzen dituen egitasmo edo egitekoak:

1.-ELKARTEEN ETA HAI EK LANTZEN DUTEN ERREALITATEA GIZARTERATZERA BEGIRAKOAK:

○ Irria aldizkariarekin elkarlanean ipuinak argitaratzea.

2018 urtean, 9 elkarteren ipuinak argitaratu dira Irria aldizkarian.

Mindara elkarte, Gure Señeak elkarte, Kale Dor Kayiko elkarte, Ulertuz elkarte, Bihotzez elkarea, Banaiz Bagara elkarte, Afesta elkarte, Chrysallis elkarte eta SuperH elkartearen ipuinak hain zuzen ere.

Adibidez, hauxe da *Mindara elkarte*ari buruz egindako ipuina:



Tekstua: Arregioan Mujika, Mermelada, Jorge Mendigoin



mindara...

Mindara dibertsitate funtzionala duten pertsonak artatzeko Gipuzkoako Elkarte da. Pertsona horien autonomia sustatzea da helburua nagusia eta horretarako balabideak eskaintzen dizkie elkarrekin.

Kirola eta jardueren osasungarriak dira elkarrekin zutoinak. Haur guzientzat da beharrezkoa kirola, irabazten, gaitzen eta taldean mugitzen haszeko bide ederra baita.

Dibertsitate funtzionala duten haurrek askotan ez dute tokirik topatzen ohiko eskolaz kanpoko jardueretan -hainbat eta eskola bazterrean ari diren aukerak zabalitzen-. Horregatik, Mindarak aukera horiek sortzen ditu.

MINDARA ELKARTEA
 Helbidea: Olibet 6, etabea. 20100 Errenteria
 Webgunea: www.mindara.org
 Helbide elektronikoa: mindarainfo@gmail.com
 Telefonoa: 943345719-61645231

- o **Ipuin horiek animazio bihurtzea, aurkezpen tresna erabil ditzaten.**
 (<http://www.bizipoza.eus/munduak-guztiontzat-beharko-luke/>)

2018 urtean 3 elkarteren ikusentzunezko eta jokoak egin dira. Kopia Bizkaiko ikastetxe guztietara bidaliko dira eta elkarte bakoitzari ere banatuko zaizkio kopia. Ikusentzunezko hauek Abendua amaieran aurkeztuko dira eta Bizipozaren web orrian izango dira ikusgai: Ume Alaia elkarte, Aspanif elkarte eta Apnabi elkarten ikusentzunezkoak izango dira.

- o **Elkarteekin ekitaldiak eta emanaldiak antolatzea.**

2018 urtean Irrien Lagunak Klubeko pertsonaiak eta Katxiporretako Porrotx-ek elkarten hainbat ekitaldietan hartu dute parte boluntarioki: Bizipoza jaiak, elkarten jaiak...

- Aurten, lehen aldiz, Udalarekin elkarlanean, Errenterian aurrera eraman ditugu ikastetxe guztietan sensibilizazio tailerrak. Tailer hauek oso egokiak izan dira haurrek, Bizipoza eta Bizipozako elkarte, gai eta baloreak lantzeko.
- 1,3 eta 5 mailako haurrek, Bizipozako gaiak eta baloreak landuko dituzte tailerren bidez. (Guztira 24 tailer izan dira maila horietako haur guztiekin).
<http://herribizia.errenteria.eus/2018/09/14/herriko-ikastetxeetako-haurrek-partehartu-duten-aniztasunean-zubiak-eraikiz-proiektuaren-laburpen-bideoa-ikusgai-dago/> loturan aurki daiteke sensibilizazio saio hauei buruzko informazioa eta bideoa.
- Aurten ere lehen aldiz, goiz osoan zehar Oiartzun irratiak eta Info7 irratiak elkarlanean osatutako irratsaioa izan da entzungai herri osoan eta saio hau ere zuzenean transmititu da irratiak. Elkarte guztien errealitatea, eguneroko lana eta transmititzen dituzten balioak elkarrizketen bidez ezagutzeko aukera paregabea izan da.





- Bolondres sareko gizarte eragile eta norbanako desberdinekin batera ekintza desberdinak aurrera eramatea.
 - 2018 urtean Real Sociedad Fundazioarekin batera bisitak egin dira onkologikora eta pediatriara, Errealeko jokalaria eta Irrien Lagunak-eko Tiritatxo pertsoniarekin batera, urtarrilean eta azaroan.



Errealeko fundazio egunean, ekainaren 10ean, Bizipozako Bihotzez elkartea protagonista izan da egunean zehar eta komunikabideetan ere.





- 2018 urtean **HUHEZIKO 4 ikaslek praktikaldia Bizipoza elkartean** burutu dute. Praktikaldi honetan, elkarteen ipuinekin burutzen ditugun ikusentzunezkoentzat proposamen didaktiko bat egin dute, ikusentzunezkoak ikastetxeetan lantzeko beste tresna bat sortuaz.
- 2018 urtean, **MONDRAGON LINGUArekin elkarlana abiatu dugu**. Bizipoza elkarteak, Mondragon Lingua eta Bizipozako elkarte bat protagonista izanik jaia antolatu da, hizkuntzarekin batera elkartasuna erdigunean jarriz. Elkarlan hau ere Bizipozako elkarteen errealitatea, egunerokoa eta baloreak transmititzeko bide egokia izan da. Aurten, Aspanogi elkarteak izan da elkarte protagonista.



- Bizipoza elkarteko eta San Filippo elkarteko boluntario den Nerea Godoy-rekin batera, 2017 urtean lehen aldiz eskolaz kanpoko ekintza piloto bat jarri zen martxan , 2018 urteko ekainean amaitu dena: **Bizipoza kantari eskolaz kanpoko ekintza.** Aurten 7 umerekin aurrera eraman den ekintza izan da, Bilboko Uribarri auzoko Artxandape ikastolan burutu dena.

[GAUR8 aldizkariak Bizipoza kantari egitasmoari buruz egindako erreportaia hemen:](#)

https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8_2018-03-17-06-00/

[hemeroteca_articles/aniztasuna-irria-enpatia-eta-elkartasuna-ikasgai-eskolaz-kanpoko-jardueretan?](https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/articles/aniztasuna-irria-enpatia-eta-elkartasuna-ikasgai-eskolaz-kanpoko-jardueretan?fbclid=IwAR1wUcfJ2WIBsKvqHwdvV5LoEBDt7AndR13lgevnPxgCAzqLbWQDm0gE3IU#.WqzdkDUXug4.facebook)

[fbclid=IwAR1wUcfJ2WIBsKvqHwdvV5LoEBDt7AndR13lgevnPxgCAzqLbWQDm0gE3IU#.WqzdkDUXug4.facebook](https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/articles/aniztasuna-irria-enpatia-eta-elkartasuna-ikasgai-eskolaz-kanpoko-jardueretan?fbclid=IwAR1wUcfJ2WIBsKvqHwdvV5LoEBDt7AndR13lgevnPxgCAzqLbWQDm0gE3IU#.WqzdkDUXug4.facebook)



- **AINHOA GANA DAÑOBEITIA Bizipoza elkarteko boluntarioa, Bizipoza elkartearen inguruko Doktoretza burutzen ari da.** Bide horretan 2018 urtean zehar hainbat kongresutan Bizipoza elkarteari buruzko hitzaldi eta konferentziak eraman ditu aurrera: Granadan (Andaluzia), Cuencan eta Barakaldon Astialdi Kongresuan.



○ Durangoko azokan Bizipozaren stand-a.

2018an Durangoko azokan presente izango da Bizipoza, egunero stand-a bertan izanik. Bizipozako elkarteen materiala eta Bizipozarena berarena izango dira presente egunero. (Abenduaren 5etik 9ra).

Horrez gain, abenduaren 7an Bizipozako elkarteetako, bazkide eta boluntario haur eta familientzat egun osoko egitarau bat osatu dugu, eta Durangoko jaieko egun hau baliatuko dugu boluntario kanpainari hasiera emateko.

ABENDUAREN 7an DURANGOKO AZOKAN!

- ◆ **11etatik 13etara:** Boluntario kanpainako elkartasun postalak sortzeko tailerra Porrotx, Tiritatxo eta Martinbertsorekin besteak beste!
- ◆ **17etan SAGUGANBARAN:** Irrien Lagunak eta Kale Dor Kayikoren ikuskizuna
Jarraian KALEJIRA guztiok elkarrekin azokan barrena
- ◆ **19etan SAGUGANBARAN:** Goizean sortutako elkartasun postalen aurkezpena, Bizipozaren boluntario kanpaina aurkezpena eta postalen bidalketa!!!



2.- ELKARTEEN ARTEKO EZAGUTZA ETA KOHESIOA

- *Prestakuntza saio orokorrak denei begira: komunikazioa nola landu kazetariekin, medikuntzako gaiak, OEErekin batera eta abar.*

2018 urtean **Bizipozako II.Jardunaldia** burutu dugu.

Jardunaldiaren helburuak honakoak izan ziren:

Jardunaldiaren helburu nagusia elkarteek komunikatzeko bitartekoak eskuratzea litzateke. Hedabide mota bakoitzak dituen ezaugarriak kontuan hartuta, horietan informazioa nola aurkeztu ezagutzea. Elkarte bakoitzak dituen behar komunikatiboen gainean hausnartu eta adituen informazioa jasoaz, eztabaidatu, eta ahal bada, gutxienekoak edo oinarrizko irizpideak adostu.

Zertarako izan zen jardunaldia:

Elkarte batzuk oso kide gutxi osatzen dute. Oso murgilduta daude duten hurrekiko premiei erantzuten eta oso zail egiten zaie ezagutarazteko dinamika egoki bat eskuratzea. Bitartekoen falta sentitzen dute askok, gauzak nola egin ezagutarazteko hurrekin aritzean etika kontuan hartuta. Bestalde, jardunaldia bakarrik ez daudela ohartzeko, babesa sentitzeko eta euren elkarte aurrera ateratzeko komunikazio tresnak eskuratzeko baliatu nahiko genuke.

Jardunaldiaren kartela:

"BIZIPOZAREN ELKARTEAK ETA KOMUNIKABIDEAK ELKARLANEAN" JARDUNALDIA

BIZIPOZA izasara bereziko gaiak lantzen dituzten eta haurren eta familien ongizatea helburu duten 92 elkarteak osatzen dugu. Guztiek Bizipoza elkarterik elkarlanean helburu awankomuna dugu: "MUNDUAK GUTZINTZAT BEHARRKO LUKE"

9:00 H MATERIALA JASO

9:15 H SARKERA *Leire Elizegi Peloki (Bizipoza)
Joke Mari Auzwendri (Hik Hast)*

9:30 H ZER JASO ETA NOLA ZABALPU *Amaçolia Mujika (prentsa idatzial)
Xabier Madariaga (telebista)*

10:15 H NOLA EGIN IKUSGARRI? *Oetzon Barandiaran (idazlea)
Estibalitz Esteban (bertsozale Elkarteak)*

11:00 H SARE SOZIALETAN LANA, NOLA EGIN ERAOKORRA? *Arkaitz Sukuntza Alkorta (TAPUNTU kooperatiba)*

11:30 H ATSEBENA (Prentsak elkarteekin hitz egiteko aukera izango du).

12:00 H MAHAI INGURUA: BIZIPOZAk zer egin lezake informazio sarea egiteko? *Amaçolia Mujika dinamiztzailea
Peafriz Sever (Ohrystalis) Bizipozaaren kidea +
Xabier Madariaga, Estibalitz Esteban,
Oetzon Barandiaran eta Arkaitz Sukuntza*

13:15 H JARDUNALDIAREN LABURPENA ETA AZKEN EKITALDIA

13:30 H AMAIERA

MAJATZAK ESEAN
ORONA
FUNDAZIOAREN
ERAKINEAN

BIZIPOZA Orona  

Jardunaldi eguneko argazkia:



Jardunaldi osoa ondorengo helbidean ikusi daiteke:

<https://www.youtube.com/watch?v=Sbh7j7X6tG0>

[&list=PLQy3vyAR5ojydKH823fUx2Lf9ABPi1BIG](https://www.youtube.com/watch?v=Sbh7j7X6tG0&list=PLQy3vyAR5ojydKH823fUx2Lf9ABPi1BIG)



Jardunaldiaren inguruan irratian burutu genuen irratsaioa hemen dago entzungai:

[https://info7.naiz.eus/eu/info_i7/20180525/laguntza-behar-duten-haurrak-ikusgarriago-eginteta-aurreiritzien-horma-eraisteko-erronka?
fbclid=IwAR2120G6k9Gx9i0ZieBfBeYYuBGW4gc5xribwnIRrXMKu73oafWFWEs3aMs](https://info7.naiz.eus/eu/info_i7/20180525/laguntza-behar-duten-haurrak-ikusgarriago-eginteta-aurreiritzien-horma-eraisteko-erronka?fbclid=IwAR2120G6k9Gx9i0ZieBfBeYYuBGW4gc5xribwnIRrXMKu73oafWFWEs3aMs)

3.- BIZIPOZA ELKARTE BERA INDARTZEKO, BAZKIDE BERRIAK ETA BOLUNTARIO SAREA INDARTZEKOAK:

○ *Komunikazioa eta harremanak*

- **Sare sozialak.** 2018 urtean sare sozialetan presentzia indartu dugu, Bizipozaren orria atsegin duen komunitatea haundituz. Asteroko lana izan da sare sozialak elikatzearena. (Facebook eta twitter). Sare sozialetan, Bizipozak aurrera eramaten dituen ekimenak gizarteratzeaz gain, Bizipozako elkarten ekimenak ere zabaltzen dira. Elkarteek ospatzen dituzten nazioarteko egunei ere indarra ematen diegu sare sozialen bidez, elkarte hori, gai hori, balore horiek indartuz.

Adibidea:



- **Komunikabideak.** Pixkanaka, komunikabideen sarea ere indartuz goaz, urtean zehar komunikabide desberdinekin harremanak landuaz. (2018 urtean presente izan garen komunikabide batzuk ondorengoak dira: Onda Vasca irratia, Euskadi irratia, Info7 irratia, Oiartzun Irratia, Errenteria Oreretako Hitza, Berria, Naiz, Diario Vasco, Noticias de Gipuzkoa, Guraso.eus, Hik Hasi aldizkaria) <http://www.bizipoza.eus/orrialdean> entzungai daude elkarrizketa batzuk.

Info7 irratiarekin elkarlan bat burutzen ari gara: Info7 irratiko Kalegorrian saioan, 2 astean behin Bizipozako elkarte batekin elkarrizketa burutzen da, elkarte horren errealitatea, egunerokoa eta transmititzen dituen baloreak gizarteratzeko. Orain artean ondorengo elkarteekin egin dira irratsaioak; Pausoka elkarte, Beroa elkarte, Kale Dor Kayiko elkarte eta abenduaren 3an Gipuzkoako Kirol egokituen federazioarekin izango da irratsaioa.

Hemen, Beroa elkartearekin buruturiko saioa entzungai:

https://info7.naiz.eus/eu/info_i7/20181105/aurreiritzien-gainetik-egonkortasuna-behar-dute-harrera-familiek?fbclid=IwAR0fB-A6cI0I5CADj5gfp2habpEdmxe_pfsjbgX51KSD3yjO4IH2suRBfm4


- **2018 urtean zehar ere, eragile, kooperatiba, instituzio desberdinekin harremanak izan ditugu Bizipoza proiektua aurkeztuaz.**

○ Bazkietza eta boluntario kanpainak

- 2018 urtean zehar, Joxe Mari Agirretxe (Porrotx) eta Leire Elizegi (Bizipozako kudeatzailea)-ren artean **“Irrigintzatik bizipozara, euskaraz”** izena duen solasaldiak burutu dira HUHEZI unibertsitatean eta Pasai Antxoko Faktoria eta Kuadrilategiko begirale eta koordinatzaileekin..



IRRIGINTZATIK BIZIPOZERA...
EUSKARAZ!



LEIRE ELIZEGI (BIZIPOZA ELKARTEA)
JOXE MARI AGIRRETXE (PORROTX)
URTARRILAREN 24an, 12:00etan
KAPERAN (N 0.2)
ANTOLATZAILEA: EUSKARA BATZORDEA



- Abenduan, **“Bizipoza, keinu bat, opari bikoitza”** boluntarioak erakartzeko kanpaina jarriko dugu martxan. Kanpainaren helburu nagusia Bizipoza eta Bizipozako elkarteak ezagutaraztea izango da, eta bestetik, jendea boluntario izatera gonbidatzea izango du helburu kanpainak. Bertan, Bizipozako elkarteetako hainbat haur eta familiak, Euskal Herriko hainbat pertsona ezagunekin batera sortuko dituzte gabonetako elkartasun postalak abenduaren 7an Durangon eta postal horiek izango dira boluntario izateko gonbitea luzatzeko erabiliko direnak. Bestetik, argazki eta bideoz osatutako kanpaina ere abiatuko da sare sozialetan abenduaren 12ean.

HELBURUA

Helburu orokorrak:

- Bizipoza Elkarte gehiago eta hobeto ezagutzera ematea.
- Bizipoza elkartean gizartegintzan jarduteko bolondresak batzea.
- Bizipoza elkarte diruz laguntzeko atxikimenduak lortzea.

- **ESLOGANA**

2017ko kanpainako mezu zentralari eutsiko diogu: “Keinu bat, opari bikoitza”.

– Keinu bat, laguntza bat: Bizipoza Elkartearen irudiarekin bat eginez.

– Opari bikoitza: bizipoza eman eta jaso.

Beharbada, berformulatu egin dezakegu, indartzeko: “Keinu bakoitza, opari bikoitza”.

- **KANPAINARAKO IDEIA**

Idea gabon-postal bereziak bidaltzeko kanpaina bat egitea da; Bizipoza elkartearen berri emanez, eta bolondres jardutera edo diruz laguntzera deituz. Gabon-postal bereziak izango dira: Bizipozaren misio-bisioetan oinarrituta eta urte amaierako aukera-okasioak baliatuz sortutako eta zabaldutako gabon-postalak:

– Bizipoza Elkarte osatzen duten 34 elkarteetako haurrek egindako marrazkiekin sortutako gabon-postalak izango dira; eta haiekin batera, Bizipoza Elkartearen gaur egungo bazkideek, bolondresak eta laguntzaileek,...

– Durangoko Azokan 1.000 gabon-postal fisiko sortu eta bidaliko ditugu, kanpaina aurkeztearekin batera; postalak zigilu eta guzti eskainiko ditugu.

– Durangoko Azoka ondorengo asteetarako, gabon-postalen bertsio digitalak prestatuko ditugu, webgunean zentralizatutako Interneteko kanpaina egiteko; norbere atxikimendua sare sozialetan agertzeko eta/edo mailing bidez kanpaina zabaltzeko.

- **KANPAINAREN SORKUNTZA**

Kanpainaren sorkuntzatik bertatik hasiko da kanpaina, nabarmentasun ekintza burutuz eta hedabideetan notizia izatea landuz:

- Durangoko Azokan gabon-postalak sortzeko tailerra muntatuko dugu, abenduaren 7an, goizez 11etatik 13etara, horretarako erraztasunak emango dituen gune egoki batean.
- Bideoan jasoko dugu tailerreko sorkuntza lan-saioa.
- Gabon-postalen sorkuntza artistikorako, Bizipoza Elkarateak bere bolondres sareko ilustratzaile, marrazkilari eta dinamizatzaileak ekarriko ditu; baita kanpainarekin bat egin eta indartu dezaketen pertsona ezagunak ere.
- Sorland-en ardura izango da abenduaren 7an sorkuntza tailerreko emaitza artistikotik egun horretan bertan gabon-postalak gauzatzeko diseinugintza eta produkzio lana egitea .
- Durangoko Azokan gabon-postal kanpaina aurkezteko eta lehen bidalketak egiteko ekitaldia egingo dugu, abenduaren 7an, 19:00etatik 19:30era, Saguanbaran; ekitaldia janzteko hitz-hartzeak, Bizipozaren euskarriak eta goizeko tailerreko irudiak baliatuko ditugu; bideoan jasoko dugu ekitaldi hau ere, egun osoak emango duenarekin osatzeko kanpainarako bideoa.

- **KANPAINAREN ZABALKUNDEA**

Kanpainaren zabalkundea ere Durangoko Azokan bertan hasiko dugu, beraz, eta hurrengo asteetan sareetara eraman:

- Durangoko Azokako asteburuan, abenduaren 8an eta 9an, Bizipozaren standean edukiko ditugu gabon-postalak, 1.000 bidalketak egin arte.

- Standean Postontzi bat edukiko dugu.
- Standerako fondoa diseinatuko dugu kanpainaren mezu eta irudiarekin.
- Prentsa bulegoa egongo da. Sare sozialak, argazkilariak, kazetariak... bertan daudela aprobetxatuz. Abenduak 7ko ekimena zabaltzeko eta baita azoka egunak ere.
- Durangoko tailerreko eta aurkezpeneko irudiekin bideoa eta argazkiak ere izango ditugu Interneteko kanpaina edukiz hornitzeko.

- **KANPAINAREN ZABALKUNDEA DIGITALEAN**

Bizipozaren sare digitala zabala eta anitza da. Horregatik, honetaz ere baliatu beharko gera eta ondorengo ekintzak abiaratuz:

- Durangoko Azoka ondorengo asteetan, Interneteko (sare sozialak eta zuzeneko emailinga) kanpaina egingo dugu.
- Garatutako postaletatik 4-5 postal digitalizatzea.
- Postal digitalak webgunean eskuragarri jartzea.
- Postal digitalak baliatuz twitter, instagram eta facebookerako 5 sarrera sortzea.

- **ADIBIDEOA**

Kanpaina hobeto ulertzeko baliagarri delakoan, ondoko loturan 2014 urteko Ibilaldiaren kanpainarako irudigintza sortzeko Seber Altube ikastolan bertako ikasle eta gurasoekin egindako tailerreko bideoa dago ikusgai:

<https://www.youtube.com/watch?v=d-2HFpmMsG0>

4.- BILBOKO EGOITZA

2017 Urtean Derion ospatu zen Bizipozaren jaia eta jaiaren ondorioz hainbat elkarlan indartu ziren. Besteak beste, Bilboko Uribarri auzoan kokatua zegoen “Asociación Benéfica Peña Uribarri” eta Bizipoza elkartearen harremanak indartu ziren.

Elkar ezagutza eta harremanaren ondorioz, “Asociación Benéfica Peña Uribarri”k bere ondasunen dohaintza Bizipoza elkarteari erabaki zuen. Dohaintza hori egiteko, batzar bat burutu zuten eta elkarteko bazkideek 2 elkarteren artean aukeratu behar izan zuten, gehiengoak Bizipoza elkarte aukeratu zuelarik.

Dohaintza horren ondorioz beraz, Peña Uribarrik Bilboko Uribarri auzoan zuen egoitza Bizipoza elkarteari eman zion dohaintzan.

2018 urtean zehar Bilboko gestoria baten laguntzarekin, dohaintza hori egin ahal izateko eman beharreko pauso guztiak zehatz aztertu dira eta pauso horiek aurrera eramanez, 2018 urteko uztailean azkenik notaritzan sinatu beharreko guztiak sinatu. 2018 urtean beraz, dohaintza hori bururaino egikaritu da, gaur-gaurkoz **Bizipozak Bilbon egoitza** izanaz.

2018 urtean zehar ere Bilboko egoitzaren aurrera begirako erabilaren inguruko hausnarketak burutu dira Bizipozako talde eragilean eta aurrera begirako proiektua zehazten hasiak gara. 2019 urtean beraz, Bizipozaren egoitzaren inaugurazioa burutzea da helburua.

5.- BIZIPOZA ETA BIZIPOZAKO ELKARTEEN DOKUWEB ETA DOKUMENTALA

DANOBATGROUP-ekin elkarlanean 2018an hasi ditugu **Bizipoza eta Bizipozako elkartearen dokuweb eta dokumentala** egiteko lanak.

DANOBATGROUPek Elkarrekin Eragin kanpaina abiarazi du 2018 urtean. Proiektu parte hartzailea da, izan ere, taldea osatzen duten kooperatibek (DANOBAT, SORALUCE, LATZ, GOIMEK, GOITI, IK4-IDEKO eta DANOBATGROUP) lankidetzan aritzeko eta ikerketarako hainbat programa aukeratu dute, non modu aktiboagoan parte hartu nahi duten.

Ekimenak proposamenak egiteko fase bat eduki du. Urte honen hasieran egin da fase hori, langileek beraien ustez laguntzak jaso beharko lituzketen proiektuak aurkeztuta.

Proposamenak baloratu ondoren, hamar proiektu finalista aukeratu ziren eta horiekin zerrenda bat prestatu zen, langile guztiek modu irekian bozkatzeko.

Bozketan, DANOBATGROUPek modu proaktiboan datozen hiru urteetan zehar landuko dituen 3 proiektuak atera ziren. 3 proiektu hauetako bat beraz, Bizipozak aurkeztutakoa izan zen: Bizipozaren eta Bizipozako elkartearen dokuweb-ak eta dokumentala egin eta gizarteratzeko proiektua.

Danobatgroup-ek prentsa ohar bidez proiektuaren berri eman zuen 2018 urteko irailean. Hemen argitaratutako:

<https://www.danobatgroup.com/eu/prentsa-oharrak/danobatgroup-konprometituagoa-gizartearekin>

PROIEKTUAREN HELBURUA:

Hauxe du helburu proiektu zehatz honek: Bizipoza eta Bizipozako elkarteek egiten duten lana, lantzen dituzten errealitateak, gizarteratzen dituzten baloreak dokumental eta dokuweb-aren bitartez gizarteratzea. Proiektu honen bitartez instrumentu garrantzitsua sortuko dugu gizartean errealitate hauek ikustarazteko eta ezagutzeko. Era berean, elkartasuna, auzolana eta bizipoza bezalako baloreak gizartean euskaraz zabaltzeko bitarteko garrantzitsua izango da, dokumental eta dokuweb-aren zabalpena Euskal Herriko herrietan eginez proiektzioen bidez, eta elkarteek ere aurkezpen eta proiektzio hauetan parte hartuaz eta dokuweb-a presente izanez hainbat weborritan: Bizipozarenean, elkarte guztienean eta babesle guztienean.

2018 URTEAN BURUTUTAKO LANAK

2018 urtean beraz, elkarte guztien dokuweb-ak egiteko lehen grabaketa fase osoa bete dugu, 2019 urte hasieran bigarren grabaketa fase bat burutuz elkarte bakoitzarekin, eta 2019 urteko azaroa inguruan proiektuaren aurkezpen nagusia burutuko dugu.

Lehen grabaketa fasea Arena Comunicación enpresak Iruñean duen estudioan burutzen ari da eta bigarren grabaketa fasea elkarte bakoitzak burutzen duen ekimen baten grabaketa izango da: elkartearen irteera bat, elkarteak burutzen dituen terapien grabaketa, elkarteak burutzen duen elkartasun jai baten grabaketa.....Hau da, elkarteak aukeratzen dituen irudiak jasotzen ditu Arena Comunicación enpresak. Lan guzti hau burutzeko ere, Bizipoza elkarteak urte osoan lanaldi erdian proiektu zehatz honetan lanean ari den pertsona bat kontratatu du.

PROIEKTUAREN AURKEZPENEN FLYER-A:



Gu nor garen kontatzen duen web atari bat egitera goaz.
Kontakteta koloretsu bat da, beste askoz osaturikoa.
Elkarte bakoitzak bere istorioa kontatzen du.
Elkarrekin sortzen dute Bizi Poza: organikoa, bizia
eta hazten dabilena.

Proiektuan, giza istorioak kontatzen esperientzia handia duen
enpresa bat arituko da, Arena Comunicación ekoiztetxea alegia.

Eraitza mikro-dokumentalekin osaturiko web atari bat da eta
istorio guztiak batzen dituen dokumental labur bat .

Honako planteamendu honek -organikoa, anitza eta malgua-
Bizi Pozari kontatzeko ahalmena ematen digu, gure esentzia
pertsonalena mantentzea eta aldi berean proiektzio
handia izatea helburutzat galdu gabe.

harremana: Leire Elizegi Beloki
647 355 358
leire@bizipoza.eus
www.bizipoza.eus

2018 URTEAN ZEHAR BURUTUTAKO HAINBAT GRABAKETETAKO ARGAZKIAK:

